

Zerbitzuen karta



Errenta eta ondarea aitortzeko kanpaina



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Sarrera

Zerbitzuen karten bidez informazioa eman nahi dugu Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatzen dituen zerbitzuen ezaugarriei buruz, eta horiek kalitatez emateko hainbat konpromiso ere hartu nahi ditugu.

Halako ekimenei esker eta zure laguntzarekin, erabiltzaileen beharrak asebetetzera bideratu nahi ditugu Foru Aldundiaren zerbitzu publikoak, eta horiek hobetzen aurrera jarraitu nahi dugu.

Eider Mendoza Larrañaga

Gipuzkoako diputatu nagusia

Itziar Agirre Berriotxoa

Ogasun eta Finantza foru diputatua

Xedea

Gipuzkoako Foru Ogasuneko Errenta eta Ondare Atalak oso helburu zehatza du, errenta eta ondarearen kanpainari begira, iruzurraren aurkako politika orokorraren barruan, hain zuzen ere, herritarrek beren borondatez aurkeztea aitortpenak, jarraitu beharreko prozedurak erraztea eta zergadun gipuzkoarrekin komunikatzeko dauden hiru kanaletan (aurrez aurrekoan, telefono bidezkoan eta bitarteko elektronikotan) laguntza eta informazioa ematea.

Zer zerbitzu ematen ditugu?

Zergadunekiko arreta

Aurrez aurreko arreta

- **Errenta mekanizatuko aitorpenen aurkezpena:** errenta mekanizatuaren 11 bulegoetan.
- **Errentarekin zerikusia duen edozein kudeaketa:** oinarrizko kontsultak herritarren arretarako bulegoetan eta edozein motatako kontsultak Foru Ogasunaren egoitza nagusian.

Arreta telefonikoa (943 11 30 00)

- **Informazioa:** 08:00etatik 15:00etara (astelehenetik ostiralera, jaiegunetan izan ezik).
- **Autolikidazio proposamenak onartzea:** 08:00etatik 20:00etara (astelehenetik ostiralera, jaiegunetan izan ezik).
- **Errenta mekanizaturako hitzordua eskatzea:** 24 ordu (astelehenetik igandera).
- **Zerga informazioa** (zergadunaren sarrerak, gastuak, atxikipenak, etab.) **postaz bidaltzeko eskatzea:** 08:00etatik 20:00etara (astelehenetik ostiralera, jaiegunetan izan ezik).

Arreta Internet bidez (www.gipuzkoa.eus/ogasuna edo www.gfaegoitza.eus)

- **Informazio orokorra:** aurkezpen modalitateak, gidaliburua, araudia, etab.
- **Zerga informazioa** (zergadunaren sarrerak, gastuak, atxikipenak, etab.):
 - Postaz bidaltzeko eskatzea, edo
 - B@kQ pasahitza edo beste ziurtagiri digital baten bitartez eskuratzeara, aitorpena egiteko datuak laguntza programa informatikora inportatzeko aukerarekin.
- **Autolikidazio proposamenak onartzea.**
- **Errenta mekanizaturako hitzordua eskatzea.**
- **Beste zerbitzu elektronikoko batzuk** (kontrazalean begiratu).

Produktu espezifikokoak

- Aitorpena egiteko, zergadunak honako produktuak aurki ditzake:
- Errenta eta ondarearen gidaliburua webgunean.
 - Errenta eta ondarearen laguntza programa informatikoak webgunean.

Aitorpenak aurkezteko modalitateak

Errentako autolikidazio proposamenak

Proposamena zehaztasun berme guztiarekin prestatzeko behar besteko informazioa baldin badago, zergadunak autolikidazio proposamena jartzen zaie eskura, egin beharreko tramiteak ahalik eta gehien erraztearren. Proposamenarekin ados egonez gero, telefonoz edo Internet bidez onartu dezake, edo bertako zenbait kontzeptu aldatu, beste ezer egin behar izan gabe. Gainera, errenta programan proposamena jaitzi dezake, haren barruan edozein aldaketa egiteko eta, datuak aldatutakoan, aitorpena Internet bidez aurkezteko. Webgunearen bitartez, zergadunak jakin dezake autolikidazio proposamena jasoko duen edo ez, eta baieztatu, baita edukia ikusi ere. Era berean, adierazi dezake nahiago duela proposamena Interneten kontsultatu, eta, horrela, aurrerantzean ez zaio postaz iritsiko.

Errenta mekanizatua

Foru Ogasuneko 100 teknikarietako batek aitorpena egiten lagunduko dizu Errenta Mekanizatuaren 11 bulegoetako batean. 2025/06/06 baino lehen, hitzordua eskatu behar da telefonoz edo Internet bidez.

Errenta eta ondarea Internet bidez

(www.gipuzkoa.eus/ogasuna edo www.gfaegoitza.eus)

- **Internet partikularrentzat:** webgunean eskuragarri dagoen laguntza programa informatikoa erabilia Internet bidez bidali daiteke aitorpena.
- **Internet ordezkarri profesionalentzat:** Sinadura elektronikokoaren bitartez autentifikatu eta gero, ordezkarri profesionalak Internet bidez bidaltzeko beren ordezkatuen aitorpenak. Aitorpenen artxiboak Foru Ogasunaren laguntza programa informatikoa erabiliz sortu daitezke, baina posible da bestelako programak erabiltzea haien erregistroak onartuta dauden diseinuen arabera.

Zein dira gure konpromisoak 2024ko kanpainan?

Zergadunari arreta egokia eta pertsonalizatua ematea eta 10 puntutatik 8tik gorako gogobetetze maila lortzea.

- 1) Tratu atsegina eta adeitsua eskainiz.
- 2) Kalitatezko informazioa, zehatza eta zabala emanez.
- 3) Elebitasuna: zergadunak aukeratzen duen hizkuntza ofiziala erabiliz.

4) Errenta aitorpen mekanizatuak aurkeztean itxaron beharreko batez besteko denbora murriztea, 10 minutu gaintu gabe.

5) Telefonoz jaso eta beren konplexutasunagatik Errentako Atalera desbideratzen diren 50.000tik gorako kontsultak lehen deian artatzea.

6) Idatziz aurkeztutako zerga kontsultei erantzuteko batez besteko denbora 10 egunetik beherakoa izatea (legezko epea 6 hilabetekoa da).

7) Idatziz aurkeztutako kexa eta iradokizunei erantzuteko batez besteko denbora 3 egunetik beherakoa izatea (legezko epea 20 egunekoa da).

Kanpaina hasi aurretik honako hau argitaratzea webgunean:

- 8) Informazio orokorra: 40 egun lehenago.
- 9) Zerga informazioa: 30 egun lehenago.

10) Aitorpenak Internet bidez aurkezteko epea beste bi egun luzatzea baldin eta kanpainako azken egunean transmisioa ezin bada normal egin arazo teknikoak daudelako.

Kanpaina hasi aurretik honako hau argitaratzea webgunean:

- 11) Dibilgazio gidaliburua: 20 egun lehenago.
- 12) Errenta eta ondarea programen bertsioak abenduko lehen egunetan, autolikidazioaren emaitza ekitaldia amaitu aurretik ezagutzeko.
- 13) Errenta eta ondarea programen behin betiko bertsioa: 6 egun lehenago.

14) Errenta zergaren autolikidazio proposamena zergadunen % 60k eskuratzea.

15) Bidaltzen diren errentako autolikidazio proposamenen %80 onar daitezela lortzea.

16) Bidaltzen diren errentako autolikidazio proposamenen %90 dauden bezala aurkez daitezela lortzea.

17) Itzulketak 3 egun balioduneko epean ordaintzea onartzen direnetik aurrera.

18) Itzulketak 3 egun balioduneko epean ordaintzea aitorpena aurkezten denetik aurrera.

19) Itzulketen %95 10 egun balioduneko epean ordaintzea dokumentazioa Ogasuneko egoitza nagusian jasotzen denetik aurrera eta gainontzekoak 2025/10/15a baino lehen ordaintzea.

Itzulketak ordaintzeko legezko epea 2025/12/31n amaitzen da.

Emaitzak 2023ko kanpainan

- 1) 8,92
- 2) 8,71
- 3) 9,22

4) 9 min. eta 50 seg.

5) Jasotako 71.817 deietatik 204 baino ez ziren galdu

6) 10,3 egun, jasotako 178 kontsulta

7) 3,0 egun, jasotako 18 kexa eta iradokizun

- 8) 42 egun
- 9) 27 egun

10) Garrantzizko gorabeherarik gabe

- 11) 24 egun lehenago
- 12) 2023-11-15

13) 8 egun lehenago

19) %99,4 (10 egunetan) eta %99,9 (2024/10/15a baino lehenago)

Nola neurtzen ditugu?

1), 2) eta 3) Zergadunek betetzen dituzten galdera sorten batez besteko balorazioa.

4) Errenta aitorpen mekanizatuak aurkezteko batez beste itxarondako denbora.

5) Errentako Atalera desbideratu diren telefono dei guztietatik, zer portzentaje artatu den.

6) Idatziz aurkeztutako zerga kontsultei erantzuteko batez besteko denbora.

7) Kexa eta iradokizunei erantzuteko batez besteko denbora.

8) eta 9) Informazio orokorreko edukiak eta zerga informazioa web gunean noiz argitaratu diren.

10) Kanpaina zehar eta, bereziki, epearen azken egunetan, Internet bidezko aurkezpenak izan dituen gorabeherak.

11), 12) eta 13) Webgunean noiz argitaratu edo bidali diren.

14) Eskura jarritako autolikidazio proposamenen portzentajea.

15) Bidali diren autolikidazio proposamen guztietatik zenbat onartu diren.

16) Proposamenak zenbat zergadunek onartu dituzten edo aitorpena beste modalitate batean baina termino berdinetan zenbatek aurkeztu duten.

17) Epearen barruan autolikidazio proposamenen zenbat itzulketa ordaindu diren.

18) Epearen barruan errenta aitorpen mekanizatuaren zenbat itzulketa ordaindu diren.

19) Internet bidez aurkeztutako aitorpenetatik epe barruan zenbat itzulketa ordaindu diren.

Ogasuneko bulegoen helbideak eta ordutegiak

Errenta mekanizatuaren bulegoak (astelehenetik larunbatera, jaiegunetan izan ezik, 8:00 - 14:00)		Herritarren arretarako bulegoak (astelehenetik ostiralera, jaiegunetan izan ezik, 08:30 - 14:00)	
Donostia - Errotaburu	Errotaburu pasealekua, 2	Egoitza nagusia	
Donostia - Amara	Antso Jakituna hiribidea, 9	Donostia - Errotaburu	Errotaburu pasealekua, 2
Donostia - Gros	Sekundino Esnaola kalea, 10-12		
Azpeitia	Julian Elorza hiribidea, 3	Beste egoitza batzuk	
Beasain	Urbialde kalea, 1	Donostia - Okendo	Okendo kalea, 20
Bergara	Toki Eder plaza, 5	Azpeitia	Julian Elorza hiribidea, 3
Eibar	Arragueta kalea, 2	Bergara	Toki Eder plaza, 5
Erreuteria	Santa Klara plaza, 2	Eibar	Arragueta kalea, 2
Hernani	Latxunbe Berri kalea, 8-9	Irun	Iparralde hiribidea, 6
Irun	Iparralde hiribidea, 6	Tolosa	San Frantzisko kalea, 45
Tolosa	San Frantzisko kalea, 45		

Aitorpenak aurkezteko tokiak eta kobratzeko nahiz ordaintzeko erak

Errenta 2024		Aurkezteko tokiak		Itzulketaren kobrantza edo zorraren ordainketa	
Modalitateak	Eraitza: zero edo itzultzea	Eraitza: ordaintzea	Eraitza: itzultzea	Eraitza: ordaintzea	
Autolikidazio proposamena	Telefonoz edo Internet bidez onartzen da		Banku transferentzia bidez hiru egun baliodun igaro aurretik	Ordainketa bat 2025/07/01ean edo, zorra zatikatuz gero, bi ordainketa: %60a 2025/07/01ean eta %40a 2025/11/10ean. Ordaintzeko erak: 1) Helbideratzea : hautatutako kontuan. 2) Ordainketa-gutuna : Entitate finantzarioak baliabide horrekin ordaintzeko eskaintzen dituen hainbat bide erabil daitezke (Entitatearen leihatila, kutxazain automatikoa, banka elektronikoa). Ordainketa banku-txartelaren bidez ere egin ahal izango da departamentuko herritarren arretarako bulegoetan. Ordainketa gutuna lortzen da ZergaBidea web plataforman, edo departamentuko herritarren arretarako bulegoetan. 3) Ordainketa-pasabidea : ZergaBidea web plataformatik.	
Mekanizatua	Errenta Mekanizatuaren 11 bulegoak				
Internet partikularrentzat	Internet bidez bidali eta frogagiriak aurkeztu behar badira, Internet bitartez edo egoitza nagusian edo herritarren arretarako bulegoetan aurkeztuz		10 egun balioduneko epean itzulketen %95 banku transferentzia bidez, frogagiriak jasotzen direnrik		
Internet bitartekarientzat	Internet bidez bidali eta frogagiriak Internet bitartez bidali				

Ondarea 2024		Aurkezteko tokiak		Zorraren ordainketa
Modalitatea		Eraitza: zero	Eraitza: ordaintzea	Eraitza: ordaintzea
Internet partikularrentzat	Internet bitartekarientzat	Internet bidez *		Ordainketa bakarra, 2025/07/01ean. Ordaintzeko erak: 1) Helbideratzea : hautatutako kontuan. 2) Ordainketa-gutuna : Entitate finantzarioak baliabide horrekin ordaintzeko eskaintzen dituen hainbat bide erabil daitezke (Entitatearen leihatila, kutxazain automatikoa, banka elektronikoa). Ordainketa banku-txartelaren bidez ere egin ahal izango da departamentuko herritarren arretarako bulegoetan. Ordainketa gutuna lortzen da ZergaBidea web plataforman, edo departamentuko herritarren arretarako bulegoetan. 3) Ordainketa-pasabidea : ZergaBidea web plataformatik.

* Ez da frogagirik aurkeztu behar. Aurkezpena amaitzen da aitorpena Internet bidez bidaltzen denean.

Araudia

2/2005 FORU ARAU OROKORRA, martxoaren 8koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zergei buruzkoa.

3/2014 FORU ARAUA, urtarrilaren 17koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarena.

2/2018 FORU ARAUA, ekainaren 11koa, Ondarearen gaineko Zergarena.

33/2014 FORU DEKRETUA, urriaren 14koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duena.

FORU AGINDUA 2024ko zergaldiko pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, ondarearen gaineko zerga eta fortuna handien gaineko aldi baterako elkartasun zerga autolikidatzeko erabiliko diren ereduak onetsi, eta horiek aurkezteko eta dirusarrera egiteko modu, epe eta tokiak ezartzen dituena.

Xedapen horiek guztiak Interneteko helbide honetan daude: www.gipuzkoa.eus/ogasuna

Erabiltzaileen eskubideak eta betekizunak

Herritarrek, Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko harremanetan, zenbait ahalmen dituzte beren eskubideak gauzatzeko, eta, aldi berean, jokabide arau batzuk bete behar dituzte.

Horiek guztiak 9/2022 Foru Dekretuak zerrendatzen ditu 7. eta 8. artikuluetan.

Ahalmenak:

- <https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/arreta/herritarren-eskubideak>

Jokabideak:

- <https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/arreta/herritarren-jokabide-arauak>

Kontsultak, kexak eta iradokizunak

Gipuzkoako Foru Aldundiak kontsultak, kexak eta iradokizunak jasotzeko sistema bat du, zeinaren bitartez herritarrek aukera izan baitezakete beren iritzia bidaltzeko karta honetan eskainitako zerbitzuez eta bere gain hartutako konpromisoez.

Kexak eta iradokizunak Foru Aldundiaren edozein erregistrotan aurkez daitezke, postaz edo Internet bidez, web orrialde honetan:

- <https://egoitza.gipuzkoa.eus/kontsultak-kexak-iradokizunak>

Gipuzkoako Foru Aldundiak 20 egun balioduneko epea du erreklamazioei erantzuteko. Guztiarekin ere, zerbitzu karta honen bitartez, Errenta eta Ondare Atalak konpromisoa hartzen du iristen zaizkion kexa eta iradokizunak, batez beste, 3 egun baliodunetik beherako epean erantzuteko.

Herritarren parte hartzea

Herritarren parte hartzea, eta, orobat, Aldundiak bere zerbitzuen inguruan hartzen dituen konpromisoei buruzko haien balorazioa ezagutzea pizgarri dira herritarrei zerbitzu hobeak eta eskuragarriagoak eskaintzeko. Horregatik, eskatzen dizugu lankidetzeta eta parte hartzea, egin daitezkeen gogobetetze inkestak betez.

Konpromisoak betetzea

Zerbitzu karta honetako konpromisoak zenbateraino betetzen diren ezagutzeko, kontsultatu urteko emailtzak honako web orri hauetan:

- www.gipuzkoa.eus/ogasuna
- <https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/arreta/zerbitzu-kartak>

Informazioa

Telefonoa
943 11 30 00

Internet
www.gipuzkoa.eus/ogasuna/errenta
www.gfaegoitza.eus

Errenta eta Ondarea aitortzeko kanpainaren zerbitzu elektronikoak

- Zerga informazioa eskuratzea.
- Internet bidez aitortpenak aurkezteko programa informatikoen argitalpena.
- Autolikidazio proposamenak onartzea.
- Errenta mekanizaturako hitzordua.
- B@kQ pasahitza eskuratzea.
- Ordainketa-gutuna eskuratzea eta harekin zorra ordaintzea.
- Ordainketa pasabidea (banku elektronikoa, kreditu edo zordunketa txartela eta Bizum).
- Zatikapen/gerorapen eskaera.
- Itzulketen tramitazio egoerari buruzko kontsulta.
- Kexa eta iradokizunak aurkezte.
- Zalantza informatikoak argitzeko on-line laguntza.

Kontuan hartu beharrekoa

Hasiera data	Bukaera data	
2025/03/31	2025/06/30	Autolikidazio proposamenak onartzea
2025/04/03	2025/06/30	Internet bidez aitortpena aurkezte
2025/04/04	2025/06/06 (epea luzatu daiteke ordu libreak egonez gero)	Errenta mekanizaturako hitzordua eskatzea
2025/04/08	2025/06/30	Errenta mekanizatuaren bulegoetan aitortpena aurkezte

Hainbat gomendio
Kontuan izan kanpainako lehen egunetan, eta kanpainan zehar baita puntako orduetan ere (11:00-13:00) zerbitzu eskaera pilatu ohi dela, eta horrek zaildu egiten duela haiek behar bezala ematea.

Zerbitzu karta honen ardura duen unitatea

Ogasun Zuzendaritza Nagusiko Errenta eta Ondare Atala arduratzen da zerbitzu karta prestatzeaz, kudeatzeaz eta jarraipena egiteaz.

21. edizioa, 2025eko martxoan argitaratua.
1. edizioa, 2005eko apirillean argitaratua.

